



IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

HLEA

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

**1 "Zaratagatik ez naiz tabernara sartzen ausartu.
.....". Zein da segida egokia?**

- a) Bai zarata!
- b) Zarata halakoa!
- c) Zarata hori!
- d) Hori zarata!

2 Zein dago TXARTO?

- a) Europan zehar zabaldu zen izurritea.
- b) Europaren zehar zabaldu zen izurritea.
- c) Europatik zehar zabaldu zen izurritea.
- d) Europan barrena zabaldu zen izurritea.

3 "Lekutan dago jatetxe hori!" Zer esan nahi du?

- a) Ez dakigula non dagoen.
- b) Gertu dagoela.
- c) Urrun dagoela.
- d) Leku batean dagoela.

4 Esnea su gainean ahaztu eta

- a) gainean egin du.
- b) gainezka egin du.
- c) gainditu egin du.
- d) gainbehera egin du.

**5 "Ezinbestean joan zen Gernikara". Zein da
baliokidea?**

- a) Gustura joan zen.
- b) Denbora-pasa joan zen.
- c) Derrigorrez joan zen.
- d) Bisitan joan zen.

6 Non dago "elkar" hitza GAIZKI erabilia?

- a) Elkarren ondoan jesarri ginen.
- b) Elkar ikusi genuen atzo.
- c) Elkarren jarraian irten ziren.
- d) Elkar suertatu ginen.

7 Biztanleen ez du ezagutzen oposizio-burua.

- a) % 43k
- b) % 43ek
- c) % 43
- d) % 43rek

8 Igaro berri den urtea aipatzeko zein dago GAIZKI?

- a) Joan den urtean
- b) Beste urtean
- c) Lehengo urtean
- d) Pasa den urtean

9 Nahi izanez gero, ipuin hori irakur

- a) zintezke.
- b) zenuke.
- c) zenezake.
- d) zenioke.

10 Zein da DESBERDINA?

- a) Euria egin ezik, ni primeran.
- b) Euria izan ezean, ni primeran.
- c) Euria ez ezik, ni primeran.
- d) Euririk egiten ez badu, ni primeran.

11 Igandeetan ez omen da futbolera beste inora joaten.

- a) Igandeetan futbolera, behintzat, ez da joaten.
- b) Igandeetan ez da joaten ez futbolera, ez inora.
- c) Igandeetan edonora joaten da.
- d) Igandeetan futbolera baino ez da joaten.

12 "Aitak esan arren, ez dut onartuko". Aukeratu baliokiderik hurbilena.

- a) Aitak esatearren, ez dut onartuko.
- b) Aitak esateagatik, ez dut onartuko.
- c) Aitak esanagatik, ez dut onartuko.
- d) Aitak esatean, ez dut onartuko.

13 Zein amets buruan?

- a) dagokizu
- b) deritzozu
- c) datorkizu
- d) darabilzu

14 Gaur goizean Aneri esan min handia egin

- a) dizkiozunek / diote.
- b) dizkiozunak / diote.
- c) diozunak / dizkiote.
- d) diozunek / dizkiote.

15 Lagunak ditut, aberatsago.

- a) zenbat eta
- b) bat baino
- c) hala nola
- d) zein baino zein

16 Ixabel ez zen hil istripuko kolpeagatik, baizik.

- a) odolusturik
- b) odoldurik
- c) odol hotzean
- d) odolbatuan

17 Zein EZ DA sail berekoa?

- a) Betilea
- b) Betazala
- c) Bekaina
- d) Beta



18 Beste arropak nahi ditugu ezkontzarako.

- a) motatako
- b) mota bateko
- c) motako
- d) mota batzutako

19 Ahalik eta jantzi behar duzu gaur.

- a) txukunena
- b) txukunagorik
- c) txukunago
- d) txukunik

20 Hainbat ez dituzte segurtasun-neurriak errespetatzen.

- a) hegazkinek
- b) hegazkin
- c) hegazkinan
- d) hegazkinak

21 Zer gertatuko zen , ez zinen joango kalera lagunekin.

- a) jakin izan banu
- b) jakingo banu
- c) baneki
- d) jakin izan banuen

22 Zinemaldiko pelikulak ikusita, ez zegoen "hau da onena" esaterik, hala iruditu zitzaidan niri.

- a) eta jakina
- b) agian bai
- c) edo behintzat
- d) eta besteak beste

23 Nola idatzi behar da?

- a) Harrarazi.
- b) Hartu arazi.
- c) Har erazi.
- d) Harrerazi.

24 "Olaizola II.ak astindu ederra jaso zuen atzoko partidari". Zer adierazten du?

- a) Zigorra jarri ziotela.
- b) Erraz galdu zuela.
- c) Jo egin zutela.
- d) Zauritu egin zela.

25 "Begira horiek larrugorritan!" Zer adierazi nahi du?

- a) Biluzik daudela.
- b) Larrua erre zaiela.
- c) Lotsatuta daudela.
- d) Haserre bizian daudela.

26 "Egun hartan bisita gogoangarria izan nuen". Zer adierazi nahi du?

- a) Bisita aspergarria.
- b) Gogoratzeko moduko bisita.
- c) Bisita gogaikarria.
- d) Ustekabeko bisita.



27 "Amore eman zuen". Bilatu baliokidea.

- a) Onartu egin zuen.
- b) Maitatu egin zuen.
- c) Amodiotan ibili zen.
- d) Eskuzalaba zen.

28 Tripulazioko sei lagunetatik alde egin dute.

- a) hiruk
- b) hiru
- c) hirurek
- d) hirurak

29 Munduan ez sekula horrelako lanik egin.

- a) da
- b) dira
- c) dago
- d) ezik

30 Ondo lagun guztiak etortzea.

- a) izango liteke
- b) leudeke
- c) egongo zen
- d) legoke

31 Aukeratu esaldi zuzena.

- a) Bizikleta hau baina politagorik ez dago.
- b) Bizikleta hau baino politik ez dago.
- c) Bizikleta hau adina politik ez dago.
- d) Bizikleta hau baino politagorik ez dago.

32 Ez daukat indar gehiago;, lanean jarraituko dut.

- a) ostera
- b) berriz
- c) horregatik
- d) hala ere

**33 "Astora igotzen hasi eta hankarik jaso ezin;"
Zein da jarraipen egokia?**

- a) hau duk hanka-sartzea!
- b) hau duk komeria!
- c) hau duk aztoramena!
- d) hau duk astakeria!

34 "Hanka egin zuen." Baliokidea bilatu.

- a) Dantza egin zuen.
- b) Alde egin zuen.
- c) Hanka sartu zuen.
- d) Herrenka zebilen.

35 "Oraindik ez du atertu". Zer esan nahi du?

- a) Euria ari duela.
- b) Laster euria egingo duela.
- c) Euria gelditu dela.
- d) Euririk ez duela egin.



- 36 Txarok gero eta hitz egiten du gaelikoz.**
- a) hobe
 - b) ondoago
 - c) hobeto
 - d) hobeago
- 37 Ainara putzura erori zen**
- a) paper eta guzti.
 - b) paper eta guztia.
 - c) paper eta guztiz.
 - d) paper eta guztiarekin.
- 38 Itxaron pixka batean, oraintxe eskolara.**
- a) eramaten zaitut
 - b) eramango zaitut
 - c) eramaten dizut
 - d) eramango dizut
- 39 "Mikelek Andoni ikusi zuen jaialdian;".**
Aukeratu jarraipen egokia.
- a) ere bai ikusi zuen Nereak
 - b) Nereak baita ere ikusi zuen
 - c) Nereak ere ikusi zuen
 - d) Nereak ere bai ikusi zuen
- 40 Autoa gidatzen**
- a) egunero gidatzez ikasten da.
 - b) egunero gidatzen ikasten da.
 - c) egunero gidatuz ikasten da.
 - d) egunero gida-gida eginda ikasten da.
- 41 Egilea ni naizela adierazteko, zein dago GAIZKI?**
- a) Hori nik egin dut.
 - b) Hori nik egina da.
 - c) Hori nigatik egina da.
 - d) Hori nik egindakoa da.
- 42 Zeinek du esanahi DESBERDINA?**
- a) Ipurterre
 - b) Egonezin
 - c) Prakanasai
 - d) Petral
- 43 Zeinek du esanahi DESBERDINA?**
- a) Liskarra
 - b) Katramila
 - c) Istilua
 - d) Trikimailua
- 44 "..... Afrikan gaudela eta lehoia ikusi dugula." Zein dago TXARTO?**
- a) Egin dezagun kontu
 - b) Demagun
 - c) Eman dezagun
 - d) Pentsa genezan



45 "Makina bat joan-etorri egindakoak gara Lakuara". Zer adierazten du?

- a) Hamaika aldiz izan garela han.
- b) Asko garela hara joan garenak.
- c) Bidaia hori alferrikakoa izaten dela.
- d) Behin joanda, ez dela ezer konpontzen.

46 Ondorengo bikoteak sinonimoak dituzu, bat IZAN EZIK. Zein?

- a) Aditzera eman / jakinarazi.
- b) Berri jakin / berri eman.
- c) Kargu hartu / kontuak eskatu.
- d) Hitz egin / berriketan egin

47 Ez du batere jaten; oso da.

- a) tripazaina
- b) jalea
- c) jatuna
- d) mizkina

48 "Josunek hitza bete du". Zein da ANTONIMOA?

- a) Hitza hustu du.
- b) Hitza jan du.
- c) Hitza hartu du.
- d) Hitza eman du.

49 "Aurtengo liburu onenak dauzkat." Zein dago TXARTO?

- a) jasoak
- b) jasota
- c) jasorik
- d) jasotak

50 Liburua erosi nuen iaz.

- a) 5 eurogatik
- b) 5 euroaz
- c) 5 euroetan
- d) 5 eurotan

51 Ni makina bat parranda

- a) egina naiz.
- b) egin dut.
- c) egin naiz.
- d) eginda naiz.

52 "Aitonaren aldean gaztea da amona." Nolakoa da amona?

- a) Aitonaren ondoan jarrita, gaztea ematen du.
- b) Aitona bezain gaztea da.
- c) Aitona baino gazteagoa da.
- d) Adin berekoak dira biak.

53 Gustura ez dagoena, hemendik.

- a) doala
- b) joatea
- c) joateko
- d) joan dezala



54 Gose naiz eta emadazu

- a) jaten.
- b) jatea.
- c) jateko.
- d) jatean.

55 Intoxikazio asko ustekabeak dira;, salmonelosi, enteritisa, etab.

- a) alegia
- b) esate baterako
- c) hain zuzen
- d) izan ere

56 Basauriko jaietan ezagutu nuen senarra, San Faustoetan,

- a) bide batez.
- b) halaber.
- c) bidenabar.
- d) hain zuzen ere.

57 Gurasoak ezkondu ziren.

- a) azaroak 10
- b) azaroak 10ean
- c) azaroaren 10ean
- d) azaroaren 10an

58 "Auto honekin jai dugu!" Zer adierazten du esamolde horrek?

- a) Etsipena
- b) Poza
- c) Zalantza
- d) Lilura

59 "Jan ezak eta bakea eman ezak!" Zer adierazi nahi du?

- a) Jan ongi eta bakean biziko haiz.
- b) Jana hiretzat, bakea besterentzat.
- c) Ongi janez gero, denok bakean.
- d) Jan eta utzi bakean.

60 "Barruak irakiten dauzkat". Zer esan nahi du?

- a) Bero daukala.
- b) Jakin-minez irrikan dagoela.
- c) Amorru bizian jarri dela.
- d) Jokabide zabala duela.

61 "Juantxok baiezkua eman du, nonbait". Zer esan nahi du?

- a) Baietz esan du, baina ez dakigu non.
- b) Zerbait esan du, baina ez dakigu zer.
- c) Baikorra da, baina motiborik gabe.
- d) Antza denez, onartu egin du.

62 "Probatuko duzu gure postrea?" Aukeratu erantzun DESEGOKIA.

- a) Nola ez, bada!
- b) Probatuko ez dut, bada!
- c) Bai, jakina!
- d) Probatzea ere!



63 "Ondo jokatzea da gauza, 19 edo 28 urte izan". Zer adierazi nahi du?

- a) Antzekoa da gaitasuna adin horietan.
- b) Adin horretarako garatua dago jokatzeko gaitasuna.
- c) Ondo jokatu behar da, adina gorabehera.
- d) Ondo jokatzeko adin-muga hor dago.

64 Zein EZ DA sail berekoa?

- a) Gaztaina
- b) Hurra
- c) Zintzurra
- d) Intxaurra

65 Zein EZ DA sail berekoa?

- a) Tipula
- b) Artilea
- c) Berakatza
- d) Ilarra

66 "Hori irakasleak berak esan dit." Zein da baliokidea?

- a) Irakasle berberak esan dit.
- b) Irakasleak esan dit, ez bestek.
- c) Irakasleren batek esan dit.
- d) Irakasle berak esan dit.

67 Asko gustatzen zaizkit eta emadazu

- a) marrubi kilo bat.
- b) kilo marrubi bat.
- c) marrubizko kilo bat.
- d) kilo bat marrubi.

68 Down sindromea izan arren, ez ezazu har!

- a) ergela
- b) ergelean
- c) ergel
- d) ergeltzat

69 Ez zara Pirinioetan ibili, ala?

- a) inoiz ez
- b) behin ere
- c) sekulako
- d) sekulan ez

70 Zein EZ DA zuzena?

- a) Banengoen, bada, zeu izan zinela.
- b) Zeu izan zinelakoan nengoen.
- c) Banengoen, bada, zeu izan ote zinen.
- d) Zeu izan ote bazinen nengoen.

ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK

HLEA

1	D	11	D	21	A	31	D	41	C	51	A	61	D
2	B	12	C	22	C	32	D	42	C	52	C	62	D
3	C	13	D	23	A	33	B	43	D	53	A	63	C
4	B	14	A	24	B	34	B	44	D	54	A	64	C
5	C	15	D	25	A	35	A	45	A	55	B	65	B
6	D	16	A	26	B	36	C	46	B	56	D	66	B
7	A	17	D	27	A	37	A	47	D	57	C	67	D
8	B	18	B	28	A	38	B	48	B	58	A	68	D
9	C	19	A	29	A	39	C	49	D	59	D	69	B
10	C	20	A	30	D	40	C	50	D	60	C	70	D